

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko urriaren 15a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Iruñea • Heldu den astean kanpo zorraren inguruko jardunaldiak egingen dituzte Zabaldi Elkartasunaren Etxean. **Jesus Ramos** • «Euskal folklorea ez da ikertu behar bezala»

Lihoaren aztarna Nafarroan

Lihoa denon ahotan ibili da azken hilabeteotan. Sua Gaztelako hainbat aletegitan hasi zen, eta sugarrek Diputatuen Kongresua erre behar zutela iruditu bazitzaigun ere, azkenean PPko politikariek ez dute ikusi beren irudi ona belzturik. Lihoaren izena, berriz, arras kaltetua atera da. Mikel Belasko toponimiako aditua landarearen izena garbitzen saiatu da, eta lihoak Nafarroan izan duen garrantzia azpimarratu. Lihoaren aztarna nabaria da hainbat lekutan, baina landare bizia aurkitzea zaila da.



Etxalar ●

Usoen aitzakian

Usategietako besta eguna ospatuko da igandean

Urtero legez, urriko hirugarren igandean egingen da Etxalarko usategietako besta.

Antzerkiaz eta dantzaldiaz gain, jendez beteko dira Lizarrieta eta Larmendi inguruak.

ETXALARKO A NAFARROAKO usategirik ezagunenetakoa da, batez ere usoak ehizatze aski modu antzinakoa erabiltzen delako, sareen bidez. Usoak usategira hurbildu ahala, paretan bitartez jaitsarazten dituzte, sarean sartu arte.

Horrek guztiak berezia egiten du Etxalarko usategia, eta horregatik ospatzen da urtero egun berezi bat, urriko hirugarren igandean. Inguruetako herrietako jendea erruz biltzen da Lizarrieta inguruetara goiz partean. Ehiztarien lana ikusteko parada izaten da. Eguerdian,

Etxalarko jatetxe orotako mahai gainetan izaten da usoa bazkaritarako.

Besta arratsaldean herri-ara jaitsiko da. 17:00etan, Auskalo taldeko hankapaluek karrikak animatuko dituzte. Ondotik, arratsko 22:00ak arte, Luharts taldearekin dantzaldia izanen da.

Altxata Elkartek ostatua-

ren eta usoen zozketaren bidez biltzen duen dirua, aurtan ere, Ttipi-Ttapa Tebista laguntzeko erabiliko du.

Postuak, diru Iturri herriarentzat

Ehiza postuak diru sarre-ara garrantzitsua izaten dira udalerrientzat, batez ere Etxalar bezalako herri tti-

kietan. Aurtan, hamar posturi eman diote sesta edo sei ena. Hala ere, ondoren-ko enkanteak ikusmen guti-ago sortu du aurtan, non-bait, ehiztariak ados jarriak zirelako. Guztira, Udalak joan den urtean baino 486.000 pezeta (19.440 li-bera) gehiago bildu ditu aurtan.

→ Jon Abril

Ziordia ●


Hiru hilabete barru bukatuko dituzte lurpeko bideko lanak

ZIORDIAKO HERRIAREN ETA Nafarroako Gobernuaren artean eztabaida sutsua eragin zuen bidea hiru hilabete barru bukatuko dute, lanen bigarren fase-ari ekin baitiote. Lur azpi-ko bideak herrigunea eta zerbitzu errepidea batu-ko ditu, baita industrial-dea, autobus geltokia eta bazkalekuak ere. Bigarren faseko aurrekontua 135 milioi pezeta inguru-koa izan da, espero zuten baino %20 merkeagoa.

Egiten ari diren bidea sei metro zabal izanen da. Gogoratuko denez, Nafarroako Gobernuak hiru metroko bidea egin nahi zuen. Baina zabalera hori ez zen nahikoa bi autok bidetik pasa ahal izateko, eta, horregatik, Ziordia-ko herritarrek hainbat mo-bilizazio egin zituzten; autobian ibilgailuen trafi-koa trabatzea, erratera-ko. Makina bat tirabira-ren ostean, Nafarroako Gobernuak sei metroko bidea egitea onartu zuen, baldin eta Udalak proiektuaren zati bat ordaintze-ko konpromisua hartzen zuen (80 milioi pezeta gehienez). Orain arte, Udalak 16 milioi pezeta ordaindu ditu.

Lanak bukatu arte, herri-arrak herri-arte-atera-tzeko bi kilometro ibili behar dituzte euren ibilgai-luekin eta Arabako mu-garaino joan.

→ A. Azpilikueta



Ehiztarien lana ikusteko parada izanen da igande honetan Etxalarren, urtero legez, usategietako bestan.

EDURNE KOCH

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Inbasioak» deitzen diete hiri handira etorri-tako azkenek eraiki dituzten bizitokiak. Men-deetan zehar izaniko lurrikarek eman diote paisaiari gaur egun erakusten digun itxura desorekatua. Amildegiek inguratzen dute hiria eta hantxe kataklismoek sorturiko malda handie-tan bizi dira, gaurko gosea biharkoan kenduko ote duten ez dakiten horiek, gizarteko eskaileran, lehenbiziko mailara ere iristen ez direnak. Mun-duko gizarterik pobreenetarikoren azkenak. Baita azken aurrekoak, eta hauengandik zertxo-bait aurrerago egotea tokatu zaienak edota ego-ten lortu dutenak ere. Behartsu denak, jakina.

Duela denbora bat, besteak baino pittin bat lehenago iritsitakoak maldaren gainean bizi

Inbasio hiria

dira eta amildegiko beherakoengandik babesten dira ahal duten bezala. Burni-ateak jartzen diz-kiote bideari eta iluntzerakoan amildegiko putzuetan bizitzari eusten diotenek ezin dute gorantza joan. Hantxe eguna argitu arte lohien artean egotera daude kondenatuak.

Aldapan behera egin ahala makurrago dira baldintzak. Blokeak zura egiten dira, zura txarra-go gero, azpian lata eta beherago kartoia eta plastikoa eta jantziak geroz eta zarpailtsuagoak egiten dira eta oinetakoak bitxikeria bat dira malda erditik behera eta zakurrak meheago, jen-dearen aurpegiak tristeagoak eta gosetea han-diagoa.

Inbasioetatik gertu, pare bat kilometrotara

gehienaz ere aberatsak bizi dira, oso aberats direnak baita ere. Eta pobreen auzoak ez dituzte ezagutzen. Hain beldur dira. Hain da batzuen eta bestearen arteko tartea. Pobreek berriz ezagutzen dituzte aberatsen inguruak, bertara joan behar izaten baitute derrigorrez haien zerbitzuan egote-ra. Oso aberatsak diren auzoetan ezin dira itxura txarrekoak sartu. Arrisku bat dira. Hain da handia beharra...

Eta horretaz kanpo, urrun-urrunean, gurean, denok ditugu egunero hiru bazkal-ordu, geroz eta pottologoak gara eta askok depresio larriak edo arinak izaten dituzte, estresaz kexu dira eta gehien-gehienek ez dakite inon «inbasioak» dire-nik.

Iruñea •

Herri pobreen zorra

Heldu den astean kanpo zorrari buruzko jardunaldiak eginen dituzte Zabaldin

Zabaldi
Elkartasunaren Etxean
kanpo zorraren
inguruko jardunaldiak
iraganen dira
astelehenetik
ostiralera. Diapositiba
emanaldiak, hiru
adituren hitzaldiak eta
Sebastiao Salgado
argazkilariaren
«Terra» erakusketa
dira jardunaldien
osagaiak.



Kanpo zorraren 'legezko bide baketsua' salatzeke xedea dute Zabaldi elkartasuna etxeak antolatu jardunaldiek.

EGUNKARIA

kalaren arduraduna da. Era-kunde honek elkartasun harremanak ditu Indonesia eta Ekialdeko Timorrekin. Nichols Ekialdeko Timorko erreferendumean begirale ibili zen eta berriki *Ekologia, kapitalismoa eta sozialismoa* izenburuko liburua argitaratu du.

Asteazkenean, Nalu Faria Silva brasildarrak Latinoamerikako kanpoko zorra. Brasilgo emakumeak zorraren aurka hitzaldia emango du. Faria Silva Brasilgo mugimendu feministako kidea da, baita PT-Brasilgo Langileen Alderdiko Idazkari-tza Nazionaleko kidea ere.

Ortzegunean EHUKo irakasle eta EKI-Ekologistak martxan taldeko kide Iñaki Barcenak *Zor sozial eta ekologikoa* izenburuko hitzaldia emanen du.

Elkartasun Astea bukatze-ko, ortziralarekin, Zabaldin, 19:30etan, asteleheneko diapositiba emanaldia eskainiko dute, baina gaztelaniaz.

Ekitaldi guztiak 19:30etan hasiko dira. Diapositiba emanaldiak eta erakusketa Zabaldin ikusgai izanen dira (Nabarrerria, 25). Hitzaldiak Konpainia karrikako Hizkuntz Eskolan izanen dira.

→ Asier Azpilikueta



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Oizko eskulanglea

Jose Luis Anso Zelaia Oiztarrari egin dio elkarrizketa **Ttipi-ttapa** aldizkariak, bere azken zenbakian. Ansok ezpela lantzen du, eta bere lanari buruz mintzatu da **Ttipi-ttapa**-ko kazetari Aitor Arozenarekin: «Ezpela Oizko mendietatik moztzen dugu eta zenbait ezpel zuhaitzek ehun urte edo izanen dituzte. Mozterako orduan, berriz, ez diogu ilargiari edo horrelakoei begiratzen... behar dugunean mendira joan, moztu eta tailerrera ekarri. Hori bai, zaila izaten da, bizkarrean atera behar izaten baitugu».

«Ezpela bakarrik lantzen dugu,


ezpelak kategoria gehiago duelako. Kontuan hartu behar da ezpela mantso-mantso hazten dela eta horrexegatik ona izaten da sukaldeko tresnak egiteko: zenbat eta gehiago erabili, orduan eta finagoa gelditzen da. Pinua eta pagoa berriz, beltzatu egiten dira. Ezpelaren neurriaren arabera, tresna gehiago edo guttiago ateratzen ahal dira puska batetik. Tresnari eman nahi zaion tamainaren arabera moztu eta itxura ezberdineko tresnak egiten ditugu, lanbide honetarako espreski egindako makinariari esker».

Egiten dituen tresnei buruz, eta ofizioak duen etorkizunari buruz ere mintzatu da eskulangle oiztarra: «32 tresna ezberdin egiten ditugu: espumaderak, espatulak, burduntzaliak... gehien saltzen direnak kutxareak dira. Jurnal tiki bat ateratzen da, baina horretarako ordu asko sartu behar dira. Tresna bakoitza akitzeko hama-bortz aldiz ibili behar da eskutan. Ni bakarrik aritzen banalaz egunean 30 bat tresna ateratzen dira tailerretik. Neurriaren arabera 400-500 pezeta-tan saltzen ditugu, gero ferreterian zenbatean saltzen duten...».

Pertsonaia ñimiñoak

Autoreek mila bider errepikatutako memelokeria da, guztiz egia ez den arren: beren eleberrien pertsonaiek gutxi-gutxi-naka bizia propioa hartzen dutela, leku batera bidaltzen dituztela eta, kia, pertsonaiek ezetz, ez dutela leku horretara joan nahi, nahiago dutela nesketan ibili, esate baterako, edo tabernara joan, baina inolaz ere hilerria gauzez eta euripean linterna bat eskuan... eta horrelako txorakeriak. Axioma hori deuseztatzeke, zuen aurrean, aziti haundi batek bezala, horrelako esku-joko bat egingo dut. Bai, asmatu duzue. Trukorik gabe, hemen eskuak erakusten dizkizuet, pertsonaia bat sortu eta nik agintzen dizkiodan gauzak egingo ditu. Musika, mesedez. Zirkuko danbor hotsak. Fokuen argiak apaltzen dira.

Horra! Nire ondora nor, eta Ansuategi Jauna ekarri dut! «Hola, Ansuategi Jauna», esaten diot nik. «Hola, arratsalde on», erantzuten dit berak. «Prest al zaude gurekin jolasteko?», «bai, atseginez, baldin eta legearen barruan bada». «Ez da izango, ba?», erantzuten diot nik, eta biok egiten dugu barre. Memento honetan nire maletatik papertxo bat ateratzen dut eta irakurtzen dizuet: «Chiapasen aldeko manifa baketsuaren alde agertzen naiz eta ez dut ez galaraziko, ez eta polizia-rik bidaliko». Ansuategi jaunari galdetzen diot orduan: «Sinatuko al zenuke baimentze soil hau?». «Inolaz ere, legalki epe batzuk bete beharrekoak daude eta...», hori esaten duen bitartean eskuan boligrafo bat jartzen diot eta berak sinatzen du! Txaloak. Musika. Txalo gehiago. Truko merkea, esango didazue. Arrazoa zuentzat... beraz, zailagoa egingo dugu! Boluntario bat, mesedez! Orduan neska bat hurbiltzen zaigu, eta «ez dugu elkar ezagutzen, ezta?» ziurtatu ondoren, beste paper bat ematen diot ozenki irakur dezan, eta neskak: «Euskal presoaren aldeko manifa baimentzen dut, inongo polizia-rik gabe eta, gainera, helikoptero-tik kolorezko konfetiak botako dituzte». Papertxo Ansuategi Jaunari hurbiltzen diot. Danbor hotsak. Begirada izutua du, «Ez, mesedez...» esan orduko... sinatu du! Txaloak. Musika. Argiak gora! Musika gehiago. Boluntarioari bi muxu. «Truko merkea», segitzen duzue, «pertsonaia txikiarekin eginga», «boluntarioa zure nobia da», segi, segi, berdin zait. Inbidia libre da.



Lihoaren arrastoak Nafarroan

Lihoaren ika-miken ostean, landareen izena zuritzen saiatu da testu honetan Mikel Belasko, toponimian aditua

Lihoa denon ahotan ibili da azken hilabeteotan. Sua Gaztelako hainbat aletegitan hasi zen, etaugarrek Diputatuen Kongresua erre behar zutela iruditu bazitzaigun ere, azkenean PPko politikariek ez dute bere irudi ona belztua ikusi. Lihoaren izena, berriz, arras kaltetua atera da.

Goian, Joxe Ulibarrenak zuzentzen duen zentroan, Artetako museo etnografikoan, ikusgai daude lihoa lantzeko antzinako lanabesak. Eskuinean, Nafarroako Unibertsitateko zientzia museoan, Lekarotz eskolako bilduman, liho idortu bat aurki dezakegu. Irudian ageri da, lihoz eginiko jaka baten ondoan.

MIKEL SAIZ / JOXE LACALLE

GURE BEGIEI AURREAN KOLTZA ETA EKILOREA bezalako landare alferra eta ezdeusa ageri zaigu, diru-laguntzak jasotzeko (beti ere horretarako informazio egokia eta goiztiarra lortu baldin bada) landatzen den horietako bat.

Baina lihoa ez da beti asmo horiekin ere. Gaur ia guztiok ahaztu dugu lihoaren iragana, baina zahar askok gogoratuko dizute, han eta hemen, nolakoak ziren liho-lanak.

Urrezko iragana

Ondorengo lerroetan horren berri eman nahi da, eta baita lihoari zor zaien gorazarrak egin ere. Benetan handia izan baita gure arbasoen bizimoduaren lihoak izan duen lekua, bai emandako zerbitzuarengatik eta baita ebatsi dien denborarengatik ere.

Lihoa ereitea ezinbestekoa zen ohiko ekonomia autarkiko batean. Bestelako baliabide ekonomikorik ez zuen gizarte batean, arras zaila zen kanpotik produktuak erosita eta nahitaez etsi behar zuten etxean egiten zenarekin. Beraz etxe batean etxeko barazki eta haragiak jan, eta etxeko artile eta lihoarekin janzen ziren.

Nafarroan zuen hedapena

Lihoaren ekoizpena handiagoa bide zen Mendialdean Erriberan baino, baina gehiago ala gutxiago Nafarroa osoan ereiten zen. Pascual Madozek, XIX. mendearen erdialdeko bere hitzegi geografikoan aipatu zuen hainbat herritako lihoaren ekoizpena eta kalitatea: Lanaibar, Ameskoa, Burunda, Olla, Artika, Petilla de Aragón, Leitza, Monteagudo... Arakilgoari berriz "lino de excelente calidad" (kalitate goreneko lihoa) iritzi zion.

Baina ez da beharrezkoa liburu zaharretan miaztea lihoaren berri izateko. Nafarroan ia ez dago lihoarekin lotua dagoen mendi, erreka edo leku izenik ez duen

herririk aurkitzea. Orokorki *lio*, *ligo*, eta *liño* osatutako izenak dira, eta *linar* agertzen da euskaldunak ez diren leku izenetan.

Lantzeko modua


Lihoaren lana nekoso eta luzea zen, horregatik herri batzuetan *lioen penak* deituak izan ziren. Patziku Perurenak, "Leitzako Errege-erreginak" liburu zoragarrian, Errutizko Lontxa Olanorengandik hartu zuen honako deskribapen hau: "Denbora baten alorren itten zen liñoa. Ontzen zenen, txukun txukun atera liño ori, ta yartzen zen zelaien xabal xabalen. Gero, leortzen zenen, azie kendu berrizko, ta eamaten zen liñaputzure. An eukitzen zen denbora luzen, liñazala usteldu arte. Urrena, putzutik atera, ta sekatzzen yartzen zen. Gero, sekatzzen zenen, itten zien maxo batzuk, eta arri zabal baten gafiñen yarritte,

mailu batekin danba! danba! yoaz, maxoak txikitu itten zien pixkoat. Andik urrena, artzen zen garban belarra bezela zearka zearka, -iru xulo izaten zittun garbak-, eta bakaillioa mozten bezelaxe, zaka!, zaka!, zaka!, ari eraññez ateratzen zen arie".

Lana munta handikoa zela ageriko gauza da, Perurenak berak bildutako beste testigantza honetan ikusten den bezala: "Iru liñeputzu bazien Gorritinen, erriko-ak'e asko yoaten ziren ara liñoa ittea; altugoa izanda, fiñegoa itten zen an, belan aundigoa baño bastogoa. Terrenoa eskatzen zuen da, garie bezelaxe itten zuen liñoa, ta gero bazien iru liñeputzu, ta ak urez beteta patue, ara bota liñue ta geñetik arrikin zamatu, an uasitzen zuen, da gero ateata lurre kendute moztu gabe eamaten zuen".

Jose Migel Barandiarani ere eman zioten lihoaren berri, oraingoan Ezkurran, 1936. urtean: "Liho-lanak edo *lioen penak* honako hauek dira: 1. Erein; 2. Ebaki; 3. Jalki; 4. Liaputzu sartu; 5. Belarretan zabaldu; 6. Liaputze (liakabi izeneko tresnaz); 7. Garbatu; 8. Moztu; 9. Liñat izeneko tresnaz ardatzu; 10. Harildu eta matazak egin; 11. Matazak upelean sartu eta hor hiru egunetan izan ura eta hausterez nahastu; 12. Iturrian matazak garbitu; 13. Berriz upelean sartu, lehen bezala, eta hiru aldiz gutxienez, zuritu arte; 14. Harildu matazetan; 15. Eutzale-ari eman, honek eune, "ehuna", egin dezan.

Jakina, lihoaren atsekabe hauek amaigabeak izanik ez da harritzekoa euskaraz esapide hau izatea: *lihoaren penak esan*, hots, kontatu beharrekia luzea baino luzeagoa dela adierazi nahi denean. Amaigabea eta gogorra beste esapide hauen arabera: *senarra usu mozkortzen zait eta lihoa bezala jotzen nau*; edota, *lihoarenak adina hartuko dituk!*



Lihoa eta dotea

Gariarena bezalako prozedura zen urteroko lihoaren lana, garaiari dagokionez aurreratutxeko izaten bazen ere. Ongi ongarritu eta goldatuko alorretan ereiten zen eta eskuz biltzen zen. Nafarroako Mendialdean emakumeen lana zen batez ere azkeneko hau. Nafarroan gainera berezitasun jakingarri bat bazen aipatu beharrekia. Resurrección María Azkuek honako hau bildu zuen 1934. urtean: "Ezkontzerako xurimeta (barneko soinekoak) gertatzen gazterik asten ziren emakumeak Baztan ta Larraunaldean eta Erronkarin, Amairren, Baraibarren, Uztaarrotzen eta Zuberon. Neskato batek, amairu bat urte zituela, artzen zuen gurasoengandik, lihoa ereiteko, lur-zati bat. Ordudanik asten zen neskatxa bere lioa berak iruin eta euleak egindako euna berak zuritu ta garbitzen".

Lihoa toponimian

Lehen aipatu bezala lihoa usu agertzen da Nafarroako toponimian. Bada *Leatxe* izeneko herri koxkorra Zangozerrian eta antza denez *Liatze* (liho-soro) hitzetik heldu da. Kontuan hartu beharrekia da XII. mendean *Liaxe* eta *Liach* idazten zela. Gainera *Linares* ize-

neko ibaia ere bada, Aguilar-Kodeskoa eta Elizagorriaren arteko bidea egiten duena.

Bi izen hauetaz gain leku txiki askok hartu dituzte beren izenak liho-lanetatik. Bai ereiten zen soroetatik: *Liatze*, *Ligatze* (Nafarroan orobat); *Ligosoro* (Sakana); *Ligerri* (Erroibar); eta baita bostitzen zen putzuetatik: *liosin*, *lioputzu*...

Arabako mugako Urdiainen, esate baterako, *Liosoroeta* izeneko lekua dugu: "len liyora eraiten zer or, da oraindo're ezautzen dira soroak" eta Aragoiko mugako Gazteluberrin *El Linar* agertzen da. Amaigabea litzateke horrelako lekuizena dituzten herrien zerrenda egitea, baina aipatzekoa da zenbait eskualdetan antzematen den maiztasuna: Larraunen dugu *Liatze* Albiassu, Astitz, Baraibar, Baxarri, Iribas, Madotz, Mugiro, Oderitz eta Golderatzen; Ibargoiti-Izaga aldean *Ligatze* dugu Untziti eta Artaitzen, eta *Linares* Eloi, Abintzao, Izko eta Getzen; Orba Ibarrean *Ligabutu* bada Amatriainen eta *Linares* Barasoain, Amatriain, Artariain, Bezkitz, Iratxeta, Santsoain, Uzkitza, Etxague, Orizin eta Orisoain; eta Urtaulen *Ligatzeta* agertzen zaigu Aietxu eta Elkoatzen eta *Los Linares* Iruberrin, Adoain, Gindano, Jakolsti, Zabaltza, Alduate eta Nardoze-Alduaten.

Liho-lanen garaia joan zaigu eta gaur inork ez du bere arropa iruten etxeko lihoaz. Baina ez da bidezkoa lihoaren izena zikindua gelditi dadin iskanbila politiko batengatik. Urtetan eta urtetan baliatu gara lihoaz eta ez gure horren aise ahaztu behar.

→ Mikel Belasko

Apenas gelditzen den lihorik

Aurten ika-mika handia izan da Espainian liho edo lihoaren inguruan. Europako Batasunak diru laguntzak ematen ditu lihoa landatzeagatik, eta, jakin denez,

Gaztela-Mantxako zenbait enpresarik diru laguntza horiek jasotzeagatik soilik landatzen zuten lihoa eta gero erre egiten zuten. Lihoaren aferan PPko zenbait kargudun nahasturik ote zeuden argitzez, Espainiako Legebiltzarrean batzordea osatu zuten. Bertan, Jaime Ignacio del Burgo ibili zen PPkoen errugabetasuna argitu nahian, eta, batzordearen ondorioak ikusirik, lortu egin zuela dirudi.

Nafarroan aurten dozena erdi bat izanen dira lihoa landatzeko laguntza eskatu duten nekazariak, EHNE sindikatuak erran duenez. NAFARKARIAk hainbat iturritatik jakin du iaz, erraterako, Urtaulbeitin eta Pitillasen lihoa landatu zutela. UAGN sindikatuaren bidez, NAFARKARIAk Pitillasen nekazari batekin hitz egin zuen, zeinak adierazi zuen iaz herriko batzuek landatu zute-

la baina oso gutxi. Lihoa landatu zuten horiekin harremanetan jartzeko eskatu zion NAFARKARIAK nekazariari, baina hark ezezko biribila eman zuen. Izan ere, arrazoitu zuenez, Espainian lihoaren inguruan sortu zen ika-mikak izutu egin ditu nekazariak.

Lihoa lehen arras garrantzitsua zen. Lihoaz lodiera askotako lokarriak eta kalitate handiko ehunak egiten ziren. Lihoaren hazietatik ateratako linazi olio sendagai emoliente ona zen, baita lihoaren irina ere. Xaboiak egiteko eta margogintzan ere erabili izan da lihoaren olio. Baina hemen aspaldi utzi zitzaion lihoa ereiteari, errentagarria ez zelako. Hori dela eta, zaila da Nafarroan liho landare bizirik ikustea.

Lihoz eginiko jantziak saltzen dituzte arropa dendetan, eta Nafarroako Unibertsitateko Zientzietako erakinek museoan erakusleho batean, kutxatxo batean, liho landare idortu bat dago eta lihoarekin egin daitezkeen gauzen erakusgarri bana. Lihoa lantzeko antzinako lanabesak aurkitzea ere erraza da: Artetako museo etnografikoan daude ikusgai. Hortaz, badago Nafarroan lihoaren aztarnarik. Eta, ziurrenik, landare bizirik ere izanen da Nafarroako lekuren batean, propio landatua edo berez hazia.

Irakurleen batek liho landaketarik ikusiko balu, NAFARKARIAk hagit eskertuko lioke non ikusi duen erratea. Lihoak zurtain luze hauskorra du, punta adartsukoa, lantza itxurako hosto luze estuak, eta lore urdinak.

→ ASIER AZPILIKUETA

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Jose Agerreren lanak Pregón aldizkarian

Nafarroa Oinez Iruñera estrainekoz dakarkigu Jaso Ikastolak; gerra ondokoan, beste Jaso batek, Felipe Jaso publizistak, Pregón literatur aldizkari berria eskeini zigun; euskarak sarbide eskasa bazuen ere, Agerreren olerki eta euskal gaiei buruzko erdal kolaborazio badiugu irakurgai.



IRUÑA DEITUKO ZEN GERRA ONDO-ko zabarkeria faxistak eragotzi izan ez balu, baina geure hiriko izena separatistatza bazeukatez, *Pregón* aukeratu zuen Prentsako Jefaturak 1943.ean, eta izen horrekin iraunarazi zuten 1972.ean mututu artean. Aurrehistoria laburra ere izan bazuen izan *Pregón*ek, bada, 1940. eta 1941. urte- etako aste santuetan *Marzo* izenarekin atera baitzituen Felipe Jaso publizistak argitalpen honen lehenbiziko bi zenbakiak; alabaina, 1943.eko aste santua apirilean egokitu zelako edo, Iruña izen berriarekin arra-batalatu zuen papera. Euskal izena debekaturik, esan bezala, urte bereko Sanferminetarako atera zen lehenbiziko *Pregón*, eta izen berria musteaz aparte, baita aldizkakotasun berria ere mustu zuten, orduz geroztik urtaroka elki zelarrik.

Orduko Nafarroako *intelligentiak* hartu zuen parte *Pregón*en proiektuan lehenbizi José Díaz Jcomeren zuzendaritzapean -kazetari galiziar hau *El Pensamiento* Navararren erredaktore-burua izan zenean-, eta 1950.ez geroztik, FET eta JONSeko propaganda burua zen Faustino Corella olerkariaren aginduetara. Kolaboratzaile aritu zirenen artean izen entzutetsuak bazeuden: José María Iribarren, Ignacio Baleztena, José Ramón Castro, Manuel Iribarren, Santi de Andía, Angel María Pascual, Florencio Idoate, Jose María Iriburu, Francisco Salinas, José Joaquín Arazuri, Patxi Arraras, Lozano Sotés, Nicolas Ardanaz, eta abar luzea.

Esan izan da euskarari tokia eskeini zitzaioala aldizkari honetan, eta egia da, baina ezin da baieztatu hau besterik gabe egia. Euskal kultura aldizkarian present egon zen gauza badugu, bereziki zenbait egilek aukeratu gai literarioetan baita hainbat artikulu folkloro-etnolagikoetan ere, alabaina euskaraz egoniko testuak arraz gutxi izan

ziren, eta guzti-guztiak idazle berak eginak, Jose Agerre Santesteban Gurbindo zenak alegia.

Jose Agerreren gainekoez ez naiz oraingoan luzatuko, nahiz, geure uste apalean, Tapiaren laguna zen honi askoz ere begirune eta ezagutza zabalagoa zordio Iruñeko euskaldunok, baita Nafarroa osokoek ere. Axularren abizenkidea genuena, Iruñean sortu zen 1889.ean eta bertan zendu zitzaigun 1962.ean; beste aipagarriren ar-



tean, *La Voz de Navarra* egunkari abertzalearen zuzendaria izan zen, baita euskaltzain oso Akademiaren sorreratik, nahiz, berehalakoan, horri muzin egin zion zeukan lanak eragotzirik.


Agerrrek 1948.etik eta hil bitartean igorri zituen bere kolaborazioak *Pregón*era, bertan agertarazi zituen kolaborazioak bi motatakoak izan zirela: Euskaraz tajutu olerki lan guztiak eta erderaz eman zituen iritziak zein saio jakingarriak bestetik. Poesiak ugari izan ziren, eta guztietan erdarazko itzulpen askea eskeini zigun: Iparragirrenen «Ara nun dira» bertsoen ailerako «Letania de la tierra sedienta, díptico en euskera y romance» (XIX, 1949), «Maiteminxiria ala-nola ur-tantoa» (XXII, 1949), Riezuren kantutegitik harturiko «O Eguberri gaua» (XXII, 1949), «Garizuman gogartez» (XLIII, 1955), «Eskola oroit-omenai batez: txitxokun-

dea» (XLIV, 1955, baita *Euzko Gogoan* ere), berriki lehen meza eman duten apez berrieri eskeini «Beti ta betikotz apez» (XLV, 1955), «Exurkiñaren etorkundean deun Iñakiri omen» (XLVIII, 1956), «Xabierreko Jaun Doni Prantziskori aintzaldi» (LIV, 1957), «Orixeren aintza» (LV, 1958), «Sanpermiñetan gurekak: karrika oztetzuan argalune» (LVI, 1958), «Ostirale deuneko mixterioak» (LIX, 1959), «Ixio: Juan Doni Brunoren beataza» (LXI, 1959), Zigaren omeneko «Margolari prestua» (LXIII, 1960), «Su-meza Jaundonibanez» (LXIV, 1960), «Ignazio Larramendi olerkaria» (LXV, 1960), «Done Agate» (LXVII, 1961), Sanferminetako irudi laburrak diren «Erriko danzariak» (LXVIII, 1961), eta «Eguberriko kanta: ixo-gaua, oi gorena!» (LXX, 1961). Olerki hauez gainera, hitz-lauzko «Pierre Lafitte: Eskualerriko gizapikuak» agertu zuen 1950.eko XXIV. alean.

Argitara eman zituen erdarazko artikuluen artean, gehienak euskararekin, euskal gauzeekin hertsiki loturik baziren: «Nuestro improvisador: el bersolari» (XVII, 1948), «Folklore vasco navideño: canciones de navidad» (XVII, 1948), «El euskara, habla nativa de Francisco de Javier» (XXXIII-XXXIV, 1952), «Libros: vocabulario navarro por José M^a Iribarren» (XXXIII-XXXIV, 1952), «Pedro de Axular» (XLVIII, 1956), «Arako, escritor satírico» (XLIV, 1956), «Folklore vasco navideño: villancicos y canciones de ronda» (L, 1956), «El príncipe Bonaparte» (LII, 1957), «Alejandro Tapia Perurena: poeta euskérico de Pamplona» (53, 1957), «Relieves de la epopeya Euskaldunak de Orix» (LV, 1958), «Folklore en San Fermín» (LVII-LVIII, 1958), «El P. Román de Vera» (LXIV, 1960), «La poesía vasca» (LXV, 1960), «Obras del P. Donostia» (LXVI, 1960), «El poeta Orix» (LXVIII, 1961), «El bertsolari y la radio» (1962), edota «Bertsolaris y el teatro euskérico» (1963).

etorri ahalean

Patziku Perurena



Lizarra

GREZIARREN ARTEAN tinkotasun indartsuaren sinbolo zen lizarra. Lantzen kirtenak lizarrez egiten ziren. Lantzen beraren bizkortasun adierazle zen lizarra. Honek harako Txirritaren bertso hura dakarkit gogora:

Lenengo etsaiak eromatarrak
bigarren txandan jentillak,
ta gero berriz frantsesarekin
izugarritzko batallak;
gure aurreko aitona zarrak
asko dira gerran illak;
mundu guziya bildurtzen zuten
Kantabriako mutillak;
gaurko mauserak aibat baziran
orduko lizar makillak.

Herrialde germanikoetan, *Yggdrasil* izeneko lizarra munduko arbola da: haren adarren itzalera zabaltzen da unibertsoa, ezin konta ahala animalia biltzen haren abarora, eta izaki bizidun guztiak sortzen haren-gandik. Lizarrak beti berde irauten du *Urd* izeneko iturri sakratutik edaten duelakotz, eta Jainko germanikoak *Yggdrasil* izeneko lizar sakratuaren itzalpean biltzen ziren munduko justizia egitera.

Dardarizko kosmikoetan, eta unibertso batek beste bati leku egiten dionean ere, lizarrak bere hartan irauten du. Ez suteak, ez hormateak ez ekaizteak hondatuko du. Lurreko hondamendietatik ihesi doan jendearen itzal izan den lizarra, eta haren itzalpean salbatutik lurra berrituko dutenena. Deusek desegin ez lezakeen bizitza betierekoaren sinbolo da lizarra.

Kabilia Haundian eta Europako Iparraldean ugalkortasunaren sinbolo da lizarra, eta *Tasent* izeneko lizarra da emakumearen guztizko arbola kutuna, eta igo behar izaten du emakumeak lizar sakratu horren gainera, hostoa eginez idiak eta behiak bazkatzen. Adituek uste dute gainera, gizona etxabereen bazkatak

landatzen hasi zenetatik, lizarra izan zela aurreneko landarea. Itun Zaharrean ere aipatzen da *Manaren Lizarra* izeneko janaria, Israelgo herria heriozko gosetik salbatzera zerutik erori zena.

Afrikaldean amuleto asko propio lizar zurez egiten dira, ahalmen bereziak dituen arbola sakratua delakotz, batez ere gizonen bihotza pilpilka paratzeko amuletoak. Sineste honi buruz, ez dakit halabeharrez, baina esan dezaket *Lizartza* eta *Lizarra* deiturako neskatxak izan zirela nere bihotza bere sasoirik gurienean pilpilka para zutenak. Eta auskalo zergatik bataiatu zuen Xavier harek ere bere burua *Lizardi*?

Lizarra, utzi ezker, gora asko luzatzen den landarea da, eta horregatik uste zuten Ipar Europako herri zaharrek zerua lurrarekin lotzen zuen arbola sakratua zela. Honek, berriz ere, euskal sinesteak dakazki burura: galdur festako lizar adaskena, esate bateko, edo etxe lur mugen zaindari ipintzearena. Lizarrak, nolabait esan, zerua ekartzen baitzuen lurreko infernua zaintzera.

Pliniok dionez, edozein pozoiri kontra egiteko oso ona omen da lizarrosto morddo baten pozima. Horregatik agian, hain pozoizu den sugea uxatu egiten omen du lizarrak. ETaren anagramakoa ere lizarra bide zen, eta horregatik aienarazi izan den sugea.

Pozoia sendatzeko ez dakit, baina artritis sendatzeko gure artean asko erabilia izan da «lizar ardoa» pozima, baina, bildur naiz artritis abertzalea sendatzeko ez ote den kapaz izan den Lizarrako ardourak berria.

Kontua da lizarri buruzko euskal sinesteak, mundu zabaleko sineste zaharretatik edan dutela noizbait. Hala eta guzi, ezin liteke honenbeste pozoia, abere gose, lurmin eta artritis politiko sendatzea gure Lizar abertzale berri honek? Edo uste al duzu zuk irlandarrei lizar arrotz bat ebatsi eta Espainiari haritz ihartu bat saltzea aski dela, amigo? Nik ez ba.

Ziria

• Motxorrosolo •

Alderdia salgai

LURRALDE BATEN BALIOAZ GALDETU ZUEN. BALIO EKONOMIKOA, dirutan erosi nahi zuen. Liberalismo ekonomikoak, teorian, truke mota hori ahalbideratzen baitu. Alderdi oso bat salgai dago, kargu, fundazio eta enparauak salmenta prezioa. Merkealdietan dira soziolistoak. Erabakiorrak diren botoak horren merke saltzen ari direla ikustean, lurraldea baino, alderdia erostea errentagarriagoa gerta daiteke.

Jesus Ramos

Ortzadar taldeko kidea

«Euskal folklorea ez da behar bezala ikertu»

Urriaren 19tik 22ra, Ortzadar taldeak antolatu "Dantza eta dantza taldeen gaur egungo egoera euskal kulturean" izenburuko jardunaldiak egingen dituzte Iruñean. Jesus Ramos jardunaldietako arduradunak azaldu duenez, folklореaren ikerkuntzan dagoen hutsune bat bete nahi dute.

HAMABOSGARREN URTEA DA Iruñeko Ortzadar Euskal Folklore Taldekoek folklorea eta kultura tradizionalaren inguruko jardunaldiak egingen dituztena.

■ Zergatik egiten dituzte jardunaldi hauek?

Beste herrietan gertatzen ez den bezala, ez dugu aurkitzen unibertsitateetan folklореaren eta, oro har, etnografiaren ikasketa edo ikerkuntzarik. Ortzadar taldean hasieratik izan dugu kezka folklorea eta etnografia ikertzeko, ikasteko eta aztertzeke, eta berrikuntzak plazaratzeko. Hutsune hori betetzeko, duela hamabost urte hasi ginen urteoro jardunaldi hauek egingen. Folklorea oso garrantzitsua da herri baten nortasuna zehazteko, zer esanik ez Nafarroa

zioak eta etorriko direnak. Euskal Herrian dantza tradizionalak beti leku handia bete du, eta nahi dugu aztertu zertan ari diren dantza taldeak eta nola ari den aldatzen, aldatu bada, dantzaren funtzioa gizarte barruan.

■ Hortaz, folklorea ez da behar bezala ikertu?

Ez. Bizitza tradizionala eza gutzen zuten edadetuak bizi zireneko garai garrantzitsua galdu egin dugu. Eta jende horrekin joan da bizitzeko eta bizitza ulertzeko modu bat. Garai horretan ez zen behar bezala ikertu, horretarako baliabiderik ez zegoelako. Eta hemendik aurrera guk ikertu behar dugu, baina ez hainbeste bildu nahian, baizik eta egungo erronkei erantzun nahian. Baserriko irudi zora-

«Baserriko irudi zoragarriak ez digu balio Euskal Herriko kultura aurrera eramateko, eta, horregatik, berrikuntza bat eskatzen du»

aldean, non Nafarroaren nortasunari buruzko eztabaida etengabea baitugu. Gure asmoa da, ahal den neurrian, folklorea zientifikoki aztertzea. Baina horrek ez du esan nahi atzera begira bakarrik ari garenik; gaur egunekoari eta etorkizunari begira ere ari gara. Adibidez, aurtengoetan aztertuko dugu dantzaren eta dantza taldeen gaur egungo egoera euskal kulturean, hau da, nola lotu etorri diren tradi-

garriak ez digu balio Euskal Herriko kultura aurrera eramateko, eta, horregatik, berrikuntza bat eskatzen du.

■ Dantza tradizionala alda daiteke?

Tradizioa ez dago eboluzioaren aurka, ezta progresuaren aurka ere. Beste motako bateko abiadura duten gauzek osatzen dute tradizioa. Mendebaldeko mundu honetan behar dugun historiaren erreferentzia eskaintzen digu

soslaia

Jesus Ramos Iruñean jaio zen duela 35 bat urte, Araitz-Beteluko guardiako medikua da eta laster hasiko da EHU-n klaseak ematen. Ortzadar taldean «duela asko» sartu zen. Dantzari izana da eta, sortu zirenetik, Ortzadarrek antolatzen dituen jardunaldien «kargurik gabeko» arduraduna da.

Ortzadar Euskal Folklore Taldeak bere 25. urtemuga ospatzen du aurtun. Ortzadarren inguruan laurogei bat pertsona daude dantza taldean, musika bandan eta bestelako zereginetan. Ramosek dioenez, «Nafarroan dantza sasoian dago» eta dantzari berriak aurkitzeko ez dago arazo handirik. «Ez dakit nola mantentzen diren taldeak», gaineratu du. «Guziak

pribatuak dira eta nik ez dut ezagutzen kultura arloan hainbeste mantentzen den talderik. Gainera, Erriberan, ohiko dantzak galdu ziren lekuetan, ari dira dantza taldeak sortzen».

Jardunaldietan «Antzinako Euskal Herriko bizimodua postal irudietan» izeneko liburua aurkeztuko dute. Jesus Ramos da egileetako bat, eta biziki emozionaturik dago bere lanak argia ikusiko duelako.

Berak testuak idatzi ditu eta Xabier Saguesek bildu ditu liburua 219 postaletatik gehienak. Liburuak 364 orrialde ditu, «edonork goza daiteke berarekin», eta 2.500 pezetan (100 libera) jarriko dute salgai. Argazki gehienak mende honen hasierakoak dira, eta badaude XIX. mendearen bukaerako batzuk ere.

tradizioak. Euskal Herrian, gaurko kulturak eskatzen du berrikuntza bat, soluzio berriak ematea sortzen diren arazo berriak.

■ Nola gauzatzen da hori praktikan?

Askotan egin den gauza bakarra izan da dagoena mantentzea eta mantendurikoa bultzatzea. Heldu zaizkigun gauza guztiak sortu ziren garai batean, garatu ziren eta guk ezagutzen ditugun moduan heldu zaizkigu. Baina dantza arteen munduaren barruan dago eta hor sormenak indar handia du. Bultzatu, moldatu

eta sortu egin behar dugu etorkizunari begira. Berreskurapenaren zikloa akitu egin da eta, hemendik aurrera, beste modu batean taularatu behar dira gaiak, beti kontuan hartuz, noski, nola-koak izan diren orain arte heldu zaizkigun gauzak. Eta Ortzadar taldea horretan saiatzen da. Nahi dugu dantza bizia bizitzeko. Dagoena gorde behar da, edo berpiztu, eta gauza berriak asmatu eta euskal kulturaren osagaiekin beste zerbaitek aurkeztu.


■ Nolakoak izanen dira jardunaldiak?

Eztabaida gunea izatea nahi dugu, gauza dinamikoa eta ez mugigaitza. Ikertzaile arituek eta ikertzaile berriek euren ekarpenak ekarriko dituzte eta euren artean eztabaidatzeko aukera izango dute. Bakoi-tzak minutu gutitan bere azalpena egingo du eta gero eztabaida sortuko da.

■ Ikertzaileen ekarpenak nola gordeko dituzte?

Lehen ikertzaileen txostenak argitaratzen genituen Vianako Printzea erakundearen Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarraren bidez. Baina duela hiru bat urte hasi ginen Sukil izeneko liburu sorta argitaratzen. Aurtengo hirugarren liburua izango da. Sukilen argitaratzen dira ikertzaile garrantzitsuenen ekarpenak. Izan ere, esan dezakegu Ortzadar taldearen jardunaldiak egingen direnean Iruñea dugula Euskal Herriko folklореaren hiriburua. Euskal Herrian iraun duen euskal folklореaren inguruko jardunaldi bakarra da gurea. Eta aurtengo 15. aldia da.

→ Asier Azpilikueta



JOXE LACALLE



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Pilarica eta gu

Pilarica eguneko besta baino askoz arrakastatsuagoa izanen da, bai, etzikoa, partaidetzaren ikuspuntutik. Gainerakoetan ere, nafar agintarien presentzian izan ezik, aise gaindituko ditugu Ahumadako dukearen omenez antolatutako ospakizunetako datuak, nahiz eta zenbait komunikabide-tan lau katu kanpotarren besta eta gainerako indiferentzia garrantzitsuagoa izan eta, hortaz, toki handiagoa eskaini hari etzikoari baino.

Jaso Ikastola iruindarrak antolatutako Nafarroa Oinezak arrakasta handia lortuko duela-koan nago. Eta baliteke igandekoa bukatu arte ezkutuan aritu nahi duten San Fermin Ikastola-koek heldu den urtekoan aurtengoa hobetzea, garaiz, behintzat, hasi baitira lanean dena ongi egiteko.

Igandekoa ongi pasatzeko besta da, lagunekin elkartu eta zerbeza batzuk hartzeko, hiri hau Barcinak uste baino euskaltzaleagoa dela erakusteko edo, ze arraiol, Barcinaz eta Pilaricaren jarraitzaileez ahazteko.

Urtean behin euskararen aldeko sekulako besta antolatze-ko gai garestia erakustea garrantzitsu-za izanagatik, esan beharrik ez dago urteko bertze 364 egunetako lana dela inportanteena, zalantzarik ez.

Astelehenean, beraz, bai San Ferminetako eta baita gainerako guztiok ere, lanean segü beharko dugu Nafarroako ikastoletako arduradunek ongi ikasi duten irizpide batzuk gidari ditugula: kalitatea, marketin ona eta euskaltzale guztiok batuko gaituen giro atsegina.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Gares:** Bihar, Gares diskotekan, Rosendo kantari madrildarrak eta Txozas taldeak kontzertua eskainiko dute, 23:00etatik aurrera.
- **Altoain:** Bihar, larunbatarekin, Ixo Rai Aragoiko taldea Ar-tsaian, 23:00etan.
- **Iruñea:** Igandean, Nafarroa Oinez bestaren barnean, beste anitzen artean, Oskorri, Maixa eta Ixiar, Mo Mau, La Venganza de la Abuela, Hemendik At!, Leihotikan eta Skalariak.

HITZALDIAK

- **Iruñea:** Gaur, Donibaneko Auzo Elkartean Pepe Rei kazetariak Ardi Beltza proiektua aurkeztuko du 20:30etan.
- **Iruñea:** Astelehenean, Javier de Navascues idazleak Jorge Luis Borges inguruko mahai-ingurua zuzenduko du Ciudad de Pamplona hotelean 19:30etatik aurrera.

BERTSOLARIAK

- **Donibane-Lohizune:** Igandean, 12:00etatik aurrera, Sardinategian, Eneritz Zabaleta, Xumai Murua, Miren Artetxe, Sustrai Kolina, Amets Arzallus, Txato eta Orti Idoate ariko dira. Gillermo Etxabarria gaitzartzaile lanetan ariko da.

ANTZERKIA

- **Zizur Nagusia:** Gaur, Zanguango taldeak *No me digas más* antzez-lana taularatuko du, Kultur Etxean, 22:00etan.

IKASTAROAK

- **Iruñea:** Udalaren euskarazko X. Sormen Tailerrak urriaren 18an hasiko dira. Honakoak dira ikastaroak: argazkigintza, pintura, tapizigintza, zermika, antzerki teknikak, txalaparta, kantua, euskal dan-

tzak, dantza latinoak, dantzaren historia, irratia, animazio eta multimedia, internet, yoga, sukaldaritza eta jantzigintza. Gazteriaren Etxean eman behar da izena. Gaur da azken eguna.

ERAKUSKETAK

- **Burlata:** Urriaren 21a arte

ikusgai izanen da kultur etxean Manuel Torresen margolanen erakusketa. Asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara bisita daiteke, eta igande zein besta egunetan, 12:00etatik 14:00etara.

- **Zangoza:** Donejakue bideari buruzko argazki erakusketa ikusgai asteazkena arte, Vallesantoro jauregian.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Dantza eta dantza taldeen gaur egungo egoera euskal kulturaren izenburupean jardunaldiak eginen dituzte asteartetik ostiralera Erraldioen Txokoa. Egutero, 19:30tan, ikertzaileek euren teoriak azalduko dituzte, eta ostean eztabaida irekia egin.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



A verdade.

Egia.